

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ESKUERNAGAKO UDALA

#### **Gaikuntza nazionaleko (idazkari-kontuhartzailea) toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzea**

Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 48. artikulutik 51. artikulura xedatutakoaren arabera, jakinarazten da 2019ko martxoaren 21etik aurrera hutsik egongo dela Eskuernagako, Mañuetako eta Samaniegoko udal elkartearen idazkari-kontuhartzaile lanpostua, titularrak erretiroa hartuko baitu. Horiek horrela, bost egun balioduneko epea irekiko da gaikuntza nazionaleko zernahi funtzionarioek Eskuernagako Udalera bidalitako idazki bidez adieraz dezan interesa duela lanpostu hori aipatutako dekretuak 48. artikulutik 51. artikulura xedatutako legezko zernahi eraren bidez betetzeko.

Idazkia posta elektronikoko helbide honetara bidaliko da: [avillabuena@ayto.araba.eus](mailto:avillabuena@ayto.araba.eus).

Eskuernaga, 2019ko martxoaren 14a

*Alkatea*

*IÑAKI PÉREZ BERRUECO*